

MODULUETAKO AKORDIOEN GIDA

2021/2022 IKASTURTEA



Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
(Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak)

(2021eko ekainaren 15ean Koordinazio Batzordeak eguneratua)

0. SARRERA	3
1. IKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK	
1.1. Nori zuzenduta dago moduluko lana?	4
1.2. Lana egitea derrigorrezkoa da?	4
1.3. Moduluko irakasgai guztietan matrikulatuta egon behar dut?	4
1.4. Zer gertatzen da matrikulatutako irakasgai horietako batean etengabeko ebaluazioari uko egiten badiot?	4
1.5. Nola erantzuten diogu moduluko lanaren planteamendu orokorrari?	5
1.6. Zer gertatzen da amaierako lanean moduluko diziplinaren bat islatzen ez bada?	5
1.7. Moduluko lana taldekoa bada, guztiok kalifikazio bera izango dugu?	5
1.8. Zer gertatzen da taldekideren batek modulu lanean inplikaziorik erakutsi ez duela frogatzen bada?	5
1.9. Zenbat denbora gordetzen da moduluko lanaren kalifikazioa?	5
1.10. Eta moduluko lana suspenditzen badugu?	5
1.11. Zer egin daiteke lortutako kalifikazioarekin ados ez bagaude?	5
1.12. Zein da azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzako planteamendua?	6
1.13. Nola jokatu behar dut azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatua izateko?	6
1.14. Zer gertatzen da plagioa detektatzen bada?	6
2. IRAKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK	
2.1. Irakasgaiko zenbat kreditu eskaini behar dizkiogu moduluko lanari?	7
2.2. Nola esplizitatu behar dugu moduluko lanean izandako parte-hartzea eta inplikazioa?	7
2.3. Irakasle parte hartzaile gisa, zein beste eginkizun bete ditzakegu?	7
2.4. Zeintzuk dira modulu koordinatzaileen eginkizunak? Eta graduetako koordinatzaileenak?	7
2.5. Zein da koordinatzaile berriak aukeratzeko prozedura?	7
2.6. Zein da gure eginkizuna lauhilabetean zehar?	7
2.7. Nola adosten da moduluko lanaren nota?	8
2.8. Zein da moduluko edo diziplinarteko kalifikazioak argitaratzeko epea?	8
2.9. Zein bide jarraitu behar dugu modulu lanen kalifikazioak argitaratzeko?	8
2.10. Nola planteatu behar da modulu lanen errebisio saioa?	8
2.11. Zer gertatzen da errebisio saioa gauzatu ondoren ikasleak emandako kalifikazioarekin ados ez badaude?	8
2.12. Ikasleek moduluko lana suspenditzen badute, irakasgaia suspenditu behar dute?	8
2.13. Zer gertatzen da ikasleek modulu lana suspenditzen badute?	8
2.14. Zer gertatzen da ikasleak hurrengo ikasturtera igarotzen badira moduluko lana gainditu gabe?	8
2.15. Moduluko lana suspendituta izan arren irakasgaia gainditu badiegu, hobetutako lana berriro zuzendu behar dugu eta berriro ere diziplinarteko ebaluazio saioan parte hartu behar dugu?	9
AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEAK	

2.16. Nola ebaluatuko ditugu azken ebaluazioa egiten duten ikasleak?	9
2.17. Zer balorazio eman behar diegu proba edo galdera horiei?	9
2.18. Zer egin behar dugu azken ebaluazioa egiten duten ikasleek planteatutako probak edo galderak gainditzeko ez badituzte?	9

3. KASU BEREZIAK

3.1. Zer gertatzen da modulu bateko hiru irakasgaitan baino gutxiagotan (edo lau baino gutxiagotan 5. moduluaren kasuan) matrikulatuta banago?	10
3.2. Zer gertatzen da euskaraz (edo gaztelaniaz) matrikulatutako ikasleek irakasgaitan batean talde aldaketa eskatzen badute (gaztelaniazko edo euskarazko taldera igarotzea)?	10
3.3. Zer gertatzen da ingelesez eskainitako irakasgaitan bat egitea hautatzen duten ikasleekin (gaztelaniazkoak zein euskarazkoak)?	10
3.4. Zer gertatzen da adaptatutako ikasleekin, gradua lortu nahi duten diplomatuekin eta espediente trasladoa eskatu dutenekin?	10
3.5. Zer gertatzen da mugikortasun programak burutzen dituzten ikasleekin?	10
3.6. Zer gertatzen da minor ezberdinetako irakasgaietan matrikulatzen diren ikasleekin?	10
3.7. Eta gradu bat (Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza) gauzatu ondoren bestea egitea erabakitzen duten ikasleen kasuan?	10
3.8. Zer gertatzen da behar bereziak dituzten ikasleen kasuan?	11
ERANSKINAK	12

0. SARRERA

EHUko Hezkuntza graduek moduluen araberako egitura dute. Horrek aldaketa esanguratsuetara egokitzea eskatzen du, batez ere esparru metodologikoan eta ebaluazioan; lehenengo eta behin, moduluaren ikuskerara ohitu behar dugu, hau da, modulua diziplinarteko irakaskuntza eredu moduan ulertu behar da, diziplina desberdinen arteko elkarreragin koherente moduan, helburu erkide bati begira: gaitasunak garatzea. Bigarren, moduluko lanaren ikuskerara ohitu behar dugu, hau da, lana moduluetakoko bakoitza osatzen duten irakasgai guztien artean modu bateratuan planifikatu, garatu eta ebaluatzen dena da.

Gida hau graduen inplementazio prozesuan sortu ziren zalantza askori erantzuteko baliagarria da; erantzun horiek Koordinazio Batzordearen kideek egindako lanaren eta modulu ezberdinetan lortutako akordioen fruitua dira. Asmo nagusia jarduera irizpide orokorrak eskaini ahal izatea da, egitura koherente, funtzional eta jasangarria lortu ahal izateko.

Aurtengo ikasturteari dagokionez, bistan denez, COVID-19 pandemiak eragindako egoera berezian aritu beharko dugu irakasten eta ikasten, horrek ekarriko duen konplexutasun maila handiarekin. Hori dela eta, EHUko hiru Hezkuntza Fakultateen artean adostu den moduan, modulukako egiturari eta diziplinarteko lanei eutsi nahi zaie, betiere ezohiko egoerak eskatzen dituen egokitzapenak eginez. Horretarako, moduluko eta minorreko irakasle talde bakoitzak autonomia izango du egokien deritzen moldapenak egiteko.

1. IKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK



1.1. NORI ZUZENDUTA DAGO MODULUKO LANA?

Modulu lana edo diziplinarteko lana ikasle guztientzat planteatzen da, etengabeko ebaluazioa egiten dutenentzat zein azken ebaluazioa egiten dutenentzat.

1.2. LANA EGITEA DERRIGORREZKOA DA?

Adierazitako salbuespenetan izan ezik (3. puntu jasotakoak), modulu lana edo diziplinarteko lana derrigorrez egin behar da.

1.3. MODULUKO IRAKASGAI GUZTIETAN MATRIKULATUTA EGON BEHAR DUT?

Diziplinarteko lana egin ahal izateko gutxienez hiru irakasgaitan matrikulatuta egon behar da; bosgarren moduluko irakasgai kopurua kontuan hartuta, lau irakasgaitan matrikulatuta egon beharko da. Matrikulatutako irakasgai horietan guztietan ezinbestekoa izango da etengabeko ebaluazioaren sistema jarraitzea.

1.4. ZER GERTATZEN DA MATRIKULATUTAKO IRAKASGAI HORIETAKO BATEAN ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEN BADIOT?

Kasu honetan azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraitzea ekarriko luke.

1.5. NOLA ERANTZUTEN DIOGU MODULUKO LANAREN PLANTEAMENDU OROKORRARI?

Lanaren orokortasunari erantzuteko, ezinbestekoa da lanean modulua osatzen duten diziplinen ikuspegi guztiak kontuan hartu eta islatzea (horregatik du diziplinarteko izaera). Modulu lan gehienak taldeka egin ohi direla kontuan hartuz, gomendatzen da irakasgai bera edo beraiek baliokidetuta duten ikasleek elkarrekin talde lana ez osatzea.

1.6. ZER GERTATZEN DA AMAIERAKO LANEAN MODULUAN INPLIKATUTAKO DIZIPLINAREN BAT ISLATZEN EZ BADA?

Lanean moduluko diziplinaren bat agertuko ez balitz, ezinezkoa izango litzateke lana gainditu ahal izatea.

1.7. MODULUKO LANA TALDEKOA BADA, GUZTIOK KALIFIKAZIO BERA IZANGO DUGU?

Gerta daiteke horrela ez izatea. Irakasle-taldeak indibidualizatutako kalifikazioak jar ditzake (egoki ikusten diren irizpideen eta ebidentzien arabera); irakasle-taldeak berak, prozesuaren hasieran, horien berri emango dizue.

1.8. ZER GERTATZEN DA TALDEKIDEREN BATEK MODULU LANEAN INPLIKAZIORIK ERAKUTSI EZ DUELA FROGATZEN BADA?

Taldekide horrek suspentsoa edukiko du ohiko deialdian, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatua izango da.

1.9. ZENBAT DENBORA GORDETZEN DA MODULUKO LANAREN KALIFIKAZIOA?

Moduluko lanaren nota suspenditutako irakasgaia edo irakasgaiak gainditu arte gordeko litzateke.

1.10. ETA MODULUKO LANA SUSPENDITZEN BADUGU?

Modulu lana irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza bada, hurrengo deialdirako hobetu egin beharko duzue. Moduluko lana ikasturte naturaleko bi deialdietan gainditzen ez baduzue, hurrengo ikasturtean azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraitu beharko da.

1.11. ZER EGIN DAITEKE LORTUTAKO KALIFIKAZIOAREKIN ADOS EZ BAGAUDE?

Lehenik eta behin, kalifikazioekin batera argitaratuko den errebisio saiora joatea ezinbestekoa da.

Aipatutako saio horretan irakasleek emandako azalpenekin, oraindik ere ados ez bagaude, badago erreklamazio bat jartzea. Horretarako, irakasle-taldeak adostutako zuzenketa eraren arabera, kasuistika hauek ezberdindu behar dira:

- Irakasle-taldeak lan guztiak zuzendu baditu: errebisio saioan emandako azalpenak entzun ondoren oraindik ados ez bagaude, ikastegiko Erreklamazio Batzordearen aurrean kexa bat jar daiteke.
- Irakasle taldeak zuzentzeko beste eraren bat adostu badu (bikoteka, tutorizatutako lanak zuzentzea): zuzenketa parte hartu ez duten

irakasleen balorazioa eska daiteke

1.12. ZEIN DA AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEENTZAKO PLANTEAMENDUA

Irakas Koordinaziorako Batzordeak gomendatzen du ikasle hauek irakasle taldeak adostutako modulu lanari buruzko hainbat galdera edo froga egitea, azterketa deialdi ofizialean (Fakultateak jarritako azterketa egunean). Hori posible ez denean, moduluko irakasle taldeak erabaki dezake irakasgai bakoitzean proba ezartzea.

Edonola ere, modulu lanaren garapena egoki jarraitzeko, etengabeko ebaluazioan ari diren ikasleek bezala, tutoretzak baliatu ahal izango dituzte ikasle hauek.

1.13. NOLA JOKATU BEHAR DUT AZKEN EBALUAZIO SISTEMAREN BIDEZ EBALUATUA IZATEKO?

Azken ebaluazioren bidez ebaluatuak izateko, inplikaturako irakasleei [etengabeko ebaluazioari uko egiteko eskaera](#) idatziz luzatu beharko zaie (9. astea baino lehen lauhileko irakasgaien kasuan, eta 18. astea baino lehen ikasturte osoko irakasgaien kasuan). Idatzizko komunikaziorako uko egitearen inprimaki ofiziala baliatuko da (3. eranskina ikusi; Fakultateko webgunean ere eskuragarri).

1.14. ZER GERTATZEN DA PLAGIOA DETEKTATZEN BADA?

Modulu lanean plagioa detektatuz gero, lana automatikoki suspendituta egongo da, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuak izango zarete.

2. IRAKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK



2.1. IRAKASGAIKO ZENBAT KREDITU ESKAINI BEHAR DIZKIOGU MODULUKO LANARI?

Gutxienez irakasgaiko kreditu bat eskaini behar zaio. Edozein kasutan, modulu lanari edo diziplinarteko lanari gehienez 2 puntuko kalifikazioa eskaintzea gomendatzen da.

2.2. NOLA ESPLIZITATU BEHAR DUGU MODULUAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA?

Prestaketa, jarraipen eta ebaluazio bileretara joateaz eta horietan parte hartzeaz gain, ezinbestekoa da irakasgaien hezkuntza gidan moduluko planteamendua argi islatzea. Moduluko irakasle guztiek hezkuntza programan moduluko lanarekin lotutako alderdiak esplizitatu behar dituzte. programako zein gai eskainiko dizkioten, moduluko lana egitera entregatzeko zein lan bideratuko duten eta horri lotuta zein ebaluazio irizpide erabiliko dituzten (adostutako irizpideak).

2.3. IRAKASLE PARTE HARTZAILE GISA, ZEIN BESTE EGINKIZUN BETE DITZAKEGU?

2. eranskinean zehaztutako eginkizunak kontsultatu.

2.4. ZEINTZUK DIRA MODULU KOORDINATZAILEEN EGINKIZUNAK? ETA GRADUETAKO KOORDINATZAILEENAK?

2. eranskinean zehaztutako eginkizunak kontsultatu.

2.5. ZEIN DA KOORDINATZAILE BERRIAK AUKERATZEKO PROZEDURA?

4. eranskina kontsultatu.

2.6. ZEIN DA GURE EGINKIZUNA LAUHILABETEAN ZEHAR?

Moduluko irakasleek ikasleei beharrezko laguntza eskaini behar diete modulu lana edo diziplinarteko lana egoki gauzatu dezaten.

2.7. NOLA ADOSTEN DA MODULUKO LANAREN NOTA?

Moduluko lana ebaluatzeko oinarria diseinatutako errubrika da; moduluko irakasle guztiek ikasleen lanak errubrika horri jarraituz ebaluatu behar dituzte.. Modulu bakoitzean erabakiko da nola antolatu lanen zuzenketa: lan guztiak, irakasle bikoteka, tutorizatutako ikasleen lanen zuzenketa...

2.8. ZEIN DA MODULUKO EDO DIZIPLINARTEKO KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEKO EPEA?

Epea moduluko irakasgaien ebaluazio proben datekin lotuta dago (kontuan hartu behar da deialdi ofizialean lehenengo azterketa duen irakasgaiak 12 egun natural edukiko dituela bere kalifikazioak argitaratzeko).

2.9. ZEIN BIDE JARRAITU BEHAR DUGU MODULU LANEN KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEKO?

Moduluko (edo adostutako pertsonak) modulu-kalifikazioak moduluko eGELAN argitaratuko ditu. Kalifikazioekin batera errebisiorako saioaren data zehaztuko da.

2.10. NOLA PLANTEATU BEHAR DA MODULU LANEN ERREBISIO SAIOA?

Irakasle-talde bakoitzak adostuko du nola gauzatu.

2.11. ZER GERTATZEN DA ERREBISIO SAIOA GAUZATU ONDOREN IKASLEAK EMANDAKO KALIFIKAZIOAREKIN ADOS EZ BADAUDE?

Kasu horretan 1.10 galderan zehaztutako prozedura jarraitu behar da.

2.12. IKASLEEK MODULUKO LANA SUSPENDITZEN BADUTE, IRAKASGAIA SUSPENDITU BEHAR DUTE?

Irakasgai bakoitzak erabakitzen du lana gainditzea irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza den edo ez, irakas gidako ebaluaketa irizpideetan esplizitatuz.

Hala ere, moduluko lana suspendituta izan arren irakasgai guztiak gainditzen badituzte, lanaren balioa zalantzan geratuko litzateke.

2.13. ZER GERTATZEN DA IKASLEEK MODULUKO LANA SUSPENDITZEN BADUTE?

Modulu lana gainditzea ezinbesteko baldintza duten irakasgaien kasuan, ez ohiko deialdian lana aurkeztu behar dute irakasleen ustez egokiak diren hobekuntzak eginda.

2.14. ZER GERTATZEN DA IKASLEAK HURRENGO IKASTURTERA IGAROTZEN BADIRA MODULUKO LANA GAINDITU GABE?

Ikasleak moduluko lana ikasturte naturaleko bi deialdietan gainditzen ez badu, hurrengo ikasturtean moduluko lanaren kasuan azken ebaluazioa egiten duten ikasleen planteamendua jarraitu beharko du.

2.15. MODULUKO LANA SUSPENDITUTA IZAN ARREN IRAKASGAIA GAINDITU BADUGU, HOBETUTAKO LANA BERRIRO ZUZENDU BEHAR DUGU ETA DIZIPLINARTEKO EBALUAZIO SAIOAN BERRIRO PARTE HARTU BEHAR DUGU?

Bai, irakasgaia gainditzeko moduluko lana gainditzea ezinbesteko baldintza moduan ez hartzeko erabakia irakasle bakoitzari dagokio; hala ere, diziplinarreko lana moduluko gai bat da, guztion eginkizuna da, eta gure inplikazioa eskatzen du.

AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEAK

2.16. NOLA EBALUATUKO DITUGU AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEAK?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak gomendatzen du ikasle hauek irakasle taldeak adostutako modulu lanari buruzko hainbat galdera edo froga egitea, azterketa deialdi ofizialean (Fakultateak jarritako azterketa egunean). Hori posible ez denean, moduluko irakasle taldeak erabaki dezake irakasgai bakoitzean proba ezartzea.

Edonola ere, modulu lanaren garapena egoki jarraitzeko, etengabeko ebaluazioan ari diren ikasleek bezala, tutoretzak baliatu ahal izango dituzte ikasle hauek.

2.17. ZER BALORAZIO EMAN BEHAR DIEGU PROBA EDO GALDERA HORIEI?

Moduluko lanari lotuta planteatzen diren probek edo galderak gehienez ere 2 puntuko kalifikazioa jaso behar dute.

2.18. ZER EGIN BEHAR DUGU AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEEK PLANTEATUTAKO PROBAK EDO GALDERAK GAINDITZEN EZ BADITUZTE?

Irakasgai bakoitzak erabakitzen du probak edo galderak gainditzea irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza den edo ez.

3. KASU BEREZIAK ETA SALBUESPENAK

3.1. ZER GERTATZEN DA MODULU BATEKO HIRU IRAKASGAITAN BAINO GUTXIAGOTAN (EDO LAU BAINO GUTXIAGOTAN 5. MODULUAREN KASUAN) MATRIKULATUTA BANAGO?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek modulu lana egin behar ez izatea gomendatzen du. Ondorioz, matrikulatutako irakasgaiaren edo irakasgaien kalifikazioa 10etik egingo da, modulu lanari dagokion ehunekoa aplikatu gabe.

3.2. ZER GERTATZEN DA EUSKARAZ (EDO GAZTELANIAZ) MATRIKULATUTAKO IKASLEEK IRAKASGAIREN BATEAN TALDE ALDAKETA ESKATZEN BADUTE (GAZTELANIAZKO EDO EUSKARAZKO TALDERA IGAROTZEA)?

Euskaraz eta gaztelaniaz programa bera denez, ikasle batzuek talde batetik bestera igarotzea eska dezakete. Ikasle horiek matrikularen zatirik handiena hartzen duen hizkuntzako moduluko lana osorik garatu behar dute (inplikaturako departamentuko irakasleak ados jarri beharko dira lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, irakasgaiko programa euskaraz eta gaztelaniaz berdina izan behar baita).

3.3. ZER GERTATZEN DA INGELESEZ ESKAINITAKO IRAKASGAIREN BAT EGITEA HAUTATZEN DUTEN IKASLEEKIN (GAZTELANIAZKOAK ZEIN EUSKARAZKOAK)?

Ikasle horiek matrikularen zatirik handiena hartzen duen hizkuntzako moduluko lana osorik garatu behar dute (inplikaturako departamentuko irakasleak ados jarri beharko dira lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko).

3.4. ZER GERTATZEN DA ADAPTATUTAKO IKASLEEKIN, GRADUA LORTU NAHI DUTEN DIPLOMATUEKIN ETA ESPEDIENTE TRASLADOA ESKATU DUTENEKIN?

Egoera berezian dauden ikasleak dira, baliokideturako irakasgai asko dituztenak eta, horren ondorioz, kurso desberdinetan kokaturako irakasgaiak burutu behar dituztenak. 1.3 galderan eta 3.1 galderan islatutakoa kontuan hartu behar da.

3.5. ZER GERTATZEN DA MUGIKORTASUN PROGRAMAK EGITEN DITUZTEN IKASLEEKIN?

Ikasle hauen kasuan sortu ohi diren gorabeherak kontuan hartuz, Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek modulu lana egin behar ez izatea gomendatzen du.

3.6. ZER GERTATZEN DA MINOR EZBERDINETAKO IRAKASGAIETAN MATRIKULATZEN DIREN IKASLEEKIN?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek minorreko lana (horretarako irakasgai espezifiko dagoen kasuetan izan ezik) egin behar ez izatea gomendatzen du.

3.7. ETA GRADU BAT (HAUR HEZKUNTZA EDO LEHEN HEZKUNTZA) GAUZATU ONDOREN BESTEA EGITEA ERABAKITZEN DUTEN IKASLEEN KASUAN?

Irakas Koordinaziorako Batzordeak ikasle hauek modulu lana egin behar ez izatea

gomendatzen du.

3.8. ZER GERTATZEN DA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN KASUAN?

Beren inklusioa eta garapen pertsonala eta akademikoa, beharrezkoa da ikasle hauen egoera ezagutzea. Egoera bakoitza era zehatzagoan ezagutu ahal izateko, Akademi Antolakuntzako Dekanordearekin (behar bereziak dituzten ikasleen arduraduna) harremanetan jartzea komeni da; GAURrek iragartzen dituen ikasleen kasuan komenigarria da, baita ere, moduluetakoko koordinatzaileak Akademi Antolakuntzako Dekanordearekin harremanetan jartzea.

1. Eranskina. Moduluen posta elektronikoak

MODULUA	ESPEZIALITATEA	KONTUA
PROFESIÓN DOCENTE IRAKASLE LANBIDEA (1)	EI	K1EI@Gasteiz@gmail.com
	HH	K1HH@Gasteiz@gmail.com
	EP	K1EP@Gasteiz@gmail.com
	LH	K1LH@Gasteiz@gmail.com
ESCUELA Y CURRÍCULUM ESKOLA ETA CURRÍCULUMA (2)	EI	K2EI@Gasteiz@gmail.com
	HH	K2HH@Gasteiz@gmail.com
	EP	K2EP@Gasteiz@gmail.com
	LH	K2LH@Gasteiz@gmail.com
HERRAMIENTAS DE COMUNICACIÓN KOMUNIKAZIO LANABESAK (3)	EI	K3EI@Gasteiz@gmail.com
	HH	K3HH@Gasteiz@gmail.com
	EP	K3EP@Gasteiz@gmail.com
	LH	K3LH@Gasteiz@gmail.com
DIVERSIDAD EN LA ESCUELA ESKOLA ANIZTASUNA (4)	EI	K4EI@Gasteiz@gmail.com
	HH	K4HH@Gasteiz@gmail.com
	EP	K4EP@Gasteiz@gmail.com
	LH	K4LH@Gasteiz@gmail.com
KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN COMPETENCIAS ESCOLARES Y CURRÍCULUM VASCO(5)	EI	K5EI@Gasteiz@gmail.com
	HH	K5HH@Gasteiz@gmail.com
	EP	K5EP@Gasteiz@gmail.com
	LH	K5LH@Gasteiz@gmail.com

2. Eranskina. Koordinatzaileen eta irakasleen funtzioak

Funciones de los/las coordinadores/as de titulación	Funciones de los/las coordinadores/as de módulo	Funciones del profesorado participante
<ul style="list-style-type: none"> • Reunirse con el Vicedecano/a de Coordinación docente. • Revisar las guías docentes de las asignaturas del módulo para verificar que incluyan los aspectos concernientes al trabajo modular. • Elaborar los informes de seguimiento de las titulaciones. • Asistir a las reuniones de la Comisión de Calidad y aportar datos de los indicadores de seguimiento. • Canalizar las situaciones de conflicto en la titulación. • Revisar y enviar las actas de las reuniones celebradas. • Colaborar en la actualización de la guía de la titulación. • Colaborar en la actualización del documento de acuerdos modulares y de convivencia. • Realizar el seguimiento de las acciones de mejora de la docencia en la titulación. • En el caso de no haber coordinador/a de módulo, estimular y/o facilitar el proceso de selección de dicha figura <ul style="list-style-type: none"> • Contribuir al buen funcionamiento de los módulos y de los trabajos modulares. • Participar en las presentaciones del 	<ul style="list-style-type: none"> • Asistir a las reuniones en las que su presencia se considere necesaria. • Aprobar, si así procede, el acta de la reunión anterior. • Revisar la guía de módulo de cara al inicio de las clases. • Asegurar que alguna de las asignaturas del módulo considere requisito indispensable aprobar el trabajo modular para poder superar la asignatura. • Programar, junto con el equipo docente, las sesiones de tutorización y las semanas pedagógicas. • Realizar la presentación del módulo y del trabajo modular ante el alumnado. • Ser el referente, para el alumnado y para el profesorado, a la hora de responder a las cuestiones que vayan surgiendo. • Canalizar las situaciones de conflicto que puedan producirse en el desarrollo del módulo y del trabajo modular. • Planificar las reuniones de módulo y enviar la convocatoria de las mismas, así como los documentos o materiales que puedan resultar necesarios para el desarrollo de las reuniones. • Gestionar adecuadamente el desarrollo de las reuniones (ver pautas para el desarrollo de reuniones eficaces en anexo 7). • Programar, junto con el equipo docente, el pase de la encuesta de evaluación del alumnado. • Coordinar la evaluación conjunta de los trabajos modulares, teniendo siempre presentes los plazos de publicación de calificaciones establecidos por la normativa de gestión académica. • Fijar, junto con el equipo docente, la fecha de revisión de los trabajos modulares. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elaborar la guía docente de la asignatura, incluyendo todos los aspectos concernientes al desarrollo del trabajo modular. • Desarrollar la actividad docente siguiendo lo establecido en el documento de acuerdos modulares y de convivencia. • Acudir y participar en las reuniones de preparación y seguimiento de los trabajos modulares. • Colaborar en el desarrollo de las reuniones y facilitar la labor del coordinador/a de módulo. • Contribuir a que las reuniones de módulo sean eficaces. • Facilitar los materiales que puedan contribuir a un mejor desarrollo del trabajo modular. • Revisar las actas de reunión y respetar los acuerdos y los compromisos adquiridos. • Tutorizar al alumnado en la forma consensuada por el equipo docente. • Respetar los plazos establecidos para la corrección de entregables y

<p>inicio de curso, junto con el equipo decanal</p> <ul style="list-style-type: none"> • Conseguir un foto actual de las encuestas de valoración sobre los módulos cumplimentadas por parte del alumnado 	<ul style="list-style-type: none"> • Analizar los resultados de las encuestas de evaluación del alumnado. • Programar las sesiones de valoración del módulo y del trabajo modular. • Programar las reuniones que se consideren necesarias para atender a los aspectos de mejora detectados. 	<p>posterior feedback al alumnado.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Participar en las sesiones de valoración, atendiendo a las propuestas de mejora que puedan resultar de las mismas.
---	--	---

3. Eranskina. Etengabeko ebaluazioari uko egiteko inprimakia



Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera

Irakaslearentzako frogagiria

Izena:
Abizenak:
NAN:
Irakasgaia:
Kurtsoa:

Uko egiten dio ohiko deialdian etengabeko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izateari
Eskatzen du ohiko deialdian azken ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data:



Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera

Ikaslearentzako frogagiria

Izena:
Abizenak:
NAN:
Irakasgaia:
Kurtsoa:

Uko egiten dio ohiko deialdian etengabeko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izateari
Eskatzen du ohiko deialdian azken ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data

4. Eranskina. Moduluak eta minorrak kudeatzeko jarraibideak

1. Orain arteko **elkarlanari** jarraika, eta EHUko sailtako zama banatzeko adostasunaren lehen irizpideari lehentasuna emanda, modulu edo minor bakoitzean bertako **irakasle talde bakoitzak lortzen duen akordioaren bidea** jorratzea da **jarraibide nagusia**. Alde horretatik, Hezkuntza Graduetako modulukako planteamendua ofiziala izaki, modulu edo minor bakoitzeko irakasleek modu eraikitzailean parte hartzea funtsezkoa da.

2. **Moduluak** (eta minorrak) ikasketa plangintza ofizialaren zati dira: graduko **ikasleek zeharkako gaitasunak lantzeko** diseinatuak dira. Hartara, modulu eta minor bakoitzak autonomia badu ere, modu kooperatiboan gauzatu behar ditugu: ikasleei eskatzen zaien ikaskuntza kooperatiboa eta dinamikoak halako irakaskuntza eredia eskatzen du berez.

3. Aurrekoaren haritik, kalitate-prozesuek adierazten diguten moduan, **oinarrizko hiru kontu hauek** jakinarazi beharko ditu modulu eta minor bakoitzeko koordinatzaileak Graduen Koordinazioan nahiz Irakas Koordinaziorako Dekanordetzan:

3.1. **Koordinatzaile berriaren** izena, aldaketarik gertatuz gero (bestela, betiere erreferentzia izan dezaten, webgunean dagoen horrek bere horretan jarraituko du)

3.2. Ikasturtea edo lauhilekoa hasi baino lehenago, **gida eguneratua**

3.3. Irakasteko aldia bukatu baino lehen graduka eta ikasleak zein irakasleak bereizita pasatu diren **asebetetze inkestetatik eratorritako emaitzak**

4. **Koordinatzailea hautatzeko gomendio batzuk** proposatu nahi dira jarraian, irakasle talde bakoitzean kontuan hartu eta, betiere modu autonomoan, funtzionamendu egokia izaten laguntzeko asmoz:

4.1. Moduluen edota minorren gaineko ezagutza gutxienekoa izatea (gutxienez urte bateko eskarmentua)

4.2. Moduluan edo minorrean txanda sistema bat adostea, sailka eta zikloka (urteka, adibidez)

4.3. Hiru modulutan/minorretan ez egotea

4.4. Aurreko urtean koordinatzaile lanik egin ez izana beste modulu/minor batean

4.5. Txikia izanagatik ere, kreditu soberakina izatea

4.6. Kontratu egoera hobea izatea (egonkorra, atxikia, konpromisoa sinatua, bakantea)

5. **Salbuespeneko bidea**: baldin eta irakasle taldean gatazka egoerarik gertatuko balitz eta, horren ondorioz, koordinatzaileak lortuko ez balitz, Graduen Koordinazioak eta Irakas Koordinaziorako Dekanordetzak koordinatzaile proposamena eramango luke Fakultate Batzarrerara, betiere arestiko gomendioak aintzat harturik.